




## Lurraren antzeko planeta bat aurkitu dute 10 argi urtera

NASAREN SOFIA behatokiak, egokitutako 'jumbo' hegazkin batean dagoenak, baieztatu du gure eguzki sistemaren antzeko batean Lurraren tankerako planeta bat dagoela 10,5 argi urtera. 'The Astronomical Journal'en argitaratu dute ikerketa.



Hego hemisferioko Eridanus konstelazioan dagoen Epsilon Eridani (Eps Eri laburtuta) izarraren inguruan aurkitu dute gure sistemaren antzekoa. Gure eguzkiaren antzeko izarren inguruan planetak nola sortzen diren ikusteko leku aproposa da, eta "Babylon 5" telesailko espazio-ontzia ere bertan dago kokatua.

Eps-ek hondakin eraztun bat du, planetak sortu ondoren geratu diren arrastoak orbitatzen geratzen direnean sortzen dena. Hondakin horiek gas eta hauts forma har dezakete, baina harri eta izotz puskak ere sortzen dira. Hondakin disko horiek zabalak eta jarraituak izan daitezke, edo gerrikoetan kontzentratua, gure eguzki sistemaren asteroide gerrikoaren antzekoa.



## Facebookek 3.000 pertsona gehiago izango ditu eduki bortitzak ezabatzeko

Sarean zabaltzen diren eduki bortitzak lehenbailehen ezabatu ahal izateko datozen hamabi hilabeteotan 3.000 pertsona gehiago kontratatuko dituela iragarri du Facebookek asteazken honetan. Gauzak horrela, sare sozial horretan zabaltzen diren edukiak ikuskatzen dituen lan-taldea nabarmen handituko da.

Hala iragarri du Mark Zuckerberg Facebookeko sortzaileak. Sare sozialetan noizean behin ageri diren indarkeria kasuak "saminduta" uzten dutela ziurtatu du Zuckerbergekek, eta azken kasuen berri izan ondoren arazo horri aurre egin ahal izateko neurri eraginkor baten bila ibili dela esan du.

"Komunitate seguru bat sortzeko asmoa badugu eduki bortitzen aurrean lehenbailehen erantzun beharra dago. Mota horretako edukiak errazago ezabatu ahal izateko lanean ari gara. Norbaitek laguntza behar izan duenean edota bideoak blokeatu behar izan ditugunean azkar erantzun dugu", azaldu du Zuckebergekek.

Era berean, astero jasotzen dituzten "milioika" salaketei erantzun bat emateko gaur egun 4.500 langile daudela nabarmendu du Facebookeko sortzaileak. Ildo horretatik, datorren urtean lan-taldean 7.500 pertsona izatea espero duela aurreratu du.

"Facebooken baimentzen ez ditugun edukiak ikuskatzen eta ezabatzen lagunduko digute. Era berean, segurtasun indarrekin estuki lanean jarraitzeko aukera izango dugu", azpimarratu du Zuckebergekek.

What is  
**BOOK TUBE**?

Eusko Jaurlaritzak eta Galtzagorri Elkarteak Booktuberboom I. Booktuber Lehiaketa jarri dute martxan.

Ekintza Euskadiko 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta, eta parte hartzaileek euskarazko liburu bat irakurri eta horri buruzko *booktube* bat sortu beharko dute. Lehiaketa sustatzeko lehen topaketa gaur izango da, Arrasaten.

Egitasmoaren helburua Euskadiko *booktuber* plataforma sortzea da, hau da, euskal *booktuber* komunitateren lehen hazia landatzea. Modu honetan, Booktuberboom lehiaketa eta lehiaketa sustatzeko booktuber bilkurak antolatu dituzte.

Ekimenaren arduradunek azaldu dutenez, lehenengo bilkura ostiralean izango da, 18.30etik 20.30era, Arrasateko Udal Liburutegian. Jarraian, maiatzaren 12an, 19.00etatik 21.00etara, bigarren bilkura Tolosako Udal Liburutegian egingo da, eta maiatzaren 26an hirugarrena, 18.30etik 20.30era, Deustuko Udal Liburutegian, Bilbon. Irailean topaketa gehiago antolatuko dira.

'Book' eta 'tube' lotzen dituen bideoa da *booktube*. Hau da, Youtube plataforman zintzilikatzen den liburu bati buruzko kritika edo iruzkina, liburu baten irakurketa gomendatzeko norberak bere buruari egindako bideo grabazioa.



**Larunbataren hasieran,** ekaitz-giroa izango dugu oraindik; zerua hodeitsu egongo da eta zaparrada trumoisu

batzuk botako ditu. Goiza aurrera joan ahala hobetuz joango da eta **arratsaldean** eguzkia izango da jaun eta jabe. Udaberriko giroa izango da, tenperatura maximoen beherakada espero den arren. Haizea aldakor ibiliko da.

**Igandean,** berriz, giro lasaia eta eguzkitsua nagusituko da. Lehen orduetan laino itsua sor daiteke, baina gainerako orduetan eguzkia gailenduko da. Goizaldean tenperatura freskoa izango da eta eguneko altuenak, aldiz, apur bat gora egin eta 20 °C-ak gaindituko dituzte.

## 'Ardiak eta otsoak' euskaraz gaur estreinatuko da



'Ardiak eta otsoak' filma euskaraz gaur estreinatuko da zinema aretoetan, Bilbon (Multicines), Errenterian, Donostian eta Gasteizen hain zuzen ere.

'Ardiak eta otsoak' urruneko lurralde magiko bateko otsoen kanpalekuan kokatzen da. Otso taldeko buru izateko bi otsoren arteko borroka kontatzen du: alde batetik, Ragaer anker eta indartsua, eta bestetik, hari aurre egiten saiatuko den Gris izenekoa.

Borrokaz haratago, maitasun eta magia kontuak tartekatzen dira istorioan zehar; adibidez, zer gertatuko litzateke otso bat bere kobazuloan dagoela ardi bihurtuko balitz?

## IRAIZOZEK EZ DU ATHLETICEN JARRAITUKO



Josu Urrutiak atzo jakinarazi zuenez, Gorka Iraizozekin bildu ziren duela bi hilabete eta orduan esan zioten ez ziotela berrituko ekainaren 30ean amaitzen zaion kontratua. Athleticen presidentek nabarmendu egin du Iraizozek hamar urte hauetan izandako portaera, eta iragarri du ziurrenik datorren astean prentsaurrekoa eskainiko dutela jokalariairekin batera.

Iraizoz 2007ko udan iritsi zen. Lezama itzulita ametsa bete zuen, bertan hasi baitzen jokatzeko, Baskonian, 18 urte zituenean. Tarte horretan Gernikan, Espanyol B-n, Eibarren eta Espanyolen bertan jokatu zuen. Talde zuri-gorrira itzuli zeneko lehen sasoiaren kostan egin zitzaion hasierako hamaikakoan tokia egitea. Dani Aranzubia eta Armando Ribereirekin lehia estua izan zuen. Bigarren sasoiaren ordea, tokia lortu zuen atepean, eta horri eutsi dio denboraldi honen hasiera arte, Kepa Arrizabalagaren agerpenak itzalean utzi duen arte.

Kepa Arrizabalagak kendu dio postua Iraizoz, eta hain zuzen, Ondarroako atezain gaztearen kontratu berritzearen inguruan "baikor" azaldu da Urrutia. Arrizabalagari 2018ko ekainaren 30ean amaituko zaio kontratua Athleticekin.

## ELASTIKOA BERRESKURATU



Antolatzaileek *Maglia Ciclamino* delakoa berreskuratu dute Giroaren mendeurrenean. Elastikoa 1970. urtean erabiltzen hasi zen eta puntuetako sailkapenaren liderra eramango du. Mendikoa "maglia azurra" (elastiko urdina) da eta igotzaile onenak eramaten du. Txirrindulari gazte onenak, aldiz, elastiko zuria janzten du. Sailkapen nagusiko liderrak eramaten duen elastikoa beti errosa da.